


ZERI EGIN BEHAR DIOGU AURRE?

Sistema kapitalistak bere mugekin topo egin du eta berregituratze prozesuan dago.

Esplotazio moduen indartzea

Itun arrazisten eta kolonialisten areagotzea



Politika patriarkalen berrindartzea

Merkatilizazio prozesuak

Ondasun eta zerbitzu publikoen pribatizazioa

Kapitalismoa krisian egoteak

Ez du esan nahi desagertzeaz dagoenik

Kapitalismoak berregituratzeko gaitasun handia du.

kapitalismoaren berregituraketa batek ezinbestean langileriaren eta batez ere emakumeen*, gazteen eta arrazializatuen baldintza material eta subjektiboen okertze orokortu bat dakar

Arazo kolektibo baten aurrean gaude, baina ez gaitu guztiok berdin kolpatzen. Norabide aldaketa bat behar dugu burujabetza feministarantz.



BIZITZA DUINAK GUZTIONTZAT


Nahi dugun bizitza ona ezin daiteke beste baten (persona, kolektibo, herri) zapalkuntza betikotzeko eraiki.

MUGAK: BURUASKITASUNAREN ZEIN ETENGABEKO HAZKUNDEAREN ENGAINUTIK ALDENDU

Bestelako balio batzuk erdigunean jarri: justizia sozial eta ekologikoa, elkarrekotasuna, aniztasunaren aitortza eta zaintza kolektiboa.

BURUJABETZA BERE ZENTZU ZABALEAN

Lurraldearen burujabetza, Euskal Herriarena, baina baita gure gorputzen eta gure sexualitatearen burujabetzaz zein bizitza konkretuen errealitateaz.




EUSKARAZ ETA EUSKARATIK BIZITZEKO ESKUBIDEA

Hizkuntza gutxituen duintasunetik abiatzen gara eta euskara guztiontzako eskuragarri izateko eskubidea aldarrikatzen dugu.

NOLA GAUZATU BURUJABETZA FEMINISTA?

ESKURATU



Herri prozesu horizontal bat behar dugu, HERRIARENA IZANGO DENA, KOMUNA, ERAIKITZEKO

Epe luzera begiratuko duen ikuspegi estrategikoa garatu nahi dugu.

Asko dugu eztabaidatzeko

Bizitza sostengatzeko jarduerak aitortu eta berrantolatatu behar dira.

Bizitza erdigunean jartzen duten prozesuak identifikatu behar ditugu.



Nolako erakundeak behar ditugu gure bizitzaren gaineko erabaki ahalmenak irabazteko?

Bitartean ALTERNATIBAK eraikitzen jarraitu behar dugu



Urgentziatzko egoeren aurrean bizitza duinak BABESTU behar ditugu



ZER DA BURUJABETZA FEMINISTA?

Bizi nahi dugun bizitzaren inguruan erabakiak hartzeko ahalmena izatea da.

Burujabetza Feminista gauzatzeko bizibideen gaineko kontrola hartu behar dugu, bai produkzio zein erreproduzio bideena.

Bakegintzan eta justizian begirada feminista txertatzea ezinbestekoa da:



Feminismoak egiten gaitu herri!

Botere egiturak iraultzeko ari gara

Mugimendu Feministaren baitan lideratza anitzak eraiki eta honek duen potentzial kritikoa indartu nahi dugu interpelazioarako eta interlokuziorako agente izateko.

Subjektu politiko anitzen artikulaziotik eta aliantzetatik egin nahi dugu osotasunaren borroka

NOREKIN EGINGO DUGU PROZESUA?

Ez dago errezeta bakarra; dominazio anitzeko sistema bada, alternatibak ere anitzak izango dira.

Komunak diren esplotazio bideetatik espezifikoak diren dominazio egoerak

Abiatuz eta aitortuz

Beharrezkoak ditugu: bide ugariak, erritmo ezberdinak, subjektu politiko anizkoitzaren artikulazioa

Eraiki dezagun, bada, gure herriaren burujabetza feminista elkarri begiratzuz eta bidea elkarrekin eginez.